

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2010-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Arabako Foru Aldundiaren Kontu Orokorraren, bere foru erakunde autonomoen eta sozietate publikoen fiskalizazio txostena mamitu du, 2010eko ekitaldiari dagokiona. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek eta horietako bostek baterako bi boto partikular egin dituzte.

Txostenak kontularitza eta legezotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, kudeaketa hobetzeko gomendioak eman eta finantza egoera aztertzen du.

HKEEk aldeko iritzia eman du Arabako Foru Aldundiak 2010eko ekitaldian legezotasuna betetzeari dagokionez, baina iritzi orokor honekiko hainbat salbuespen azaldu ditu.

Bada, administrazioko kontratazioaren fiskalizazioan azpimarratu da obra eta zerbitzuen bi espedientetan aldaketak egin direla eta kopuruaren tamaina aintzat hartuta lehia printzipioak urratu dituztela; beste hainbeste gertatu da erosketa txiki modura izapidetutako hainbat kontrataziotan; horiek prozedura ireki bitartez izapidetu behar ziratekeen edo batzuetan eragozpen txostena egin zaie, ezarritako prozedurak saihesteagatik.

AFaren bi erakunde autonomoek indarreko araudia bete dute ekonomia-finantzaren kudeaketan, salbuespen izan delarik Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean hainbat kontrataziotan ezargarria den arautegia ez bete izana.

Epaitegiaren iritzira, AFAk eta Gazteriaren Foru Erakundeak eta Gizarte Ongizaterako Institutuak aurkeztutako kontuek alderdi esanguratsu guztietan ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute, nahiz AFaren kasuan 2010eko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikin erabilgarrian bi zuzenketa azaleratu dituen, geldikina 128 milioi euroan murrizten dutenak eta txostenean bertan zehaztu direnak.

Txostenak, gainera, % 50etik gorako partaidetza duten bederatzi foru sozietate publikoak fiskalizatzen ditu eta erakunde fiskalizatzailearen iritzi orokorra aldekoa izan da, bertan jasotako ez-betetze eta salbuespenak salbuetsita. Berebat, sozietate publiko horien urteko kontuei buruzko iritzi aldekoa eman du.

Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzako hainbat alderdiri dagozkionak, sarrera fiskal, ondasun eta ondasun eta zerbitzuen kontratazioa, diru laguntzen emakida eta langileen kudeaketari buruzkoak.

Azkenik, finantza analisisian ondorioztatu da Diruzaintza Geldikin Erabilgarria % 2,2 gehitu dela 2009koarekiko; hala ere, aintzat hartu behar da HKEEk proposatutako doiketekin saldoa negatiboa izango litzatekeela 14 milioi euroren zenbatekoan; gainera, azpimarratzekoa da aurrekontuaren zorpetzea AFAREN kasuan % 40,3 gehitu dela 2009ko ekitaldi itxieran zegoenarekiko, eta % 30,40koa enpresa sektore publikoaren zorpetzea barne hartuz gero.